Zinema Latinoaren Jaeger-LeCoultre sariduna
Paz Vega, aktorea


Paz Vega

“

Gauza guztiekin harritzen jarraitzen dut. Ematen dudan pauso bakoitza lehenengoa balitz bezala da. Nire lanbidea oso modu intentsuan bizi dut; horri eusten diodala uste dut. Asko gustatuko litzaidake Donostiara proiektu berri bat aurkeztera bueltatzea eta film bat izan daiteke edo... telesail bat!

”

Paz Vega



Zinemira sariduna

Julia Juaniz, muntatzailea



“

Eskerrik asko nigan pentsatzeagatik. Ezustekoa izan da eta Zinemaldiarekin eta euskal ekoizleekin oso eskertuta nago. Muntaketa aintzatesteko balio izatea espero dut. Lan teknikoa da, baina baita sormenezkoa ere. Ez naizenez ezkonduko eta erretiratzeko asmorik ez dudanez, jakin ezazue; hau nire festa da!

”

Julia Juaniz

Industria

The Industry Club

Zinemaldiko Industria Sailak, The Industry Clubek, industriako profesional guztiei beren Donostiako egonaldia ahalik eta emankorrena eta gogobetegarriena izateko baliabideak eta jarduerak eskaini zizkien. Horretarako, **industriako akreditazioa** zeukaten. Horrek The Industry Clubek programatutako zerbitzuez eta ekimenez baliatzeko aukera eman zien, baita Zinemaldian programatutako filmetara joatekoa ere.

2017an, Zinemaldian, 3.911 profesional akreditatu ziren; horietatik **1.621 industriako profesional akreditatuak ziren**, 60 herrialdeetako 1.087 enpresatakoak. Horrek esan nahi du 2016an baino % 3,3 gehiago izan zirela, eta % 64 baino gehiagoko igoera jarraitua izan duela 2010arekiko.

Eremu geografikoari erreparatuta, Europako 1.367 profesional izan ziren (% 84,3), Latinoamerikako 155 (% 9,5) eta beste lurralde batzuetako 99 (% 6,1). 879 profesional Espainiatik etorri ziren, eta horietatik 179 Euskadikoak ziren.

2017ko BERRIKUNTZAK

Edizio horretan, The Industry Clubek bere jardueretan berrikuntza batzuk aurkeztu zituen, profesionalen arteko elkarlana errazteko:

Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroak pitching saioetarako egun bat gehiago izan zuen. Ondorioz, aurkeztutako garabidean zeuden hamasei proiektuetarako bilera pertsonalizatuak egiteko aukera gehiago izan ziren. Gainera, lehen aldiz, Zinemaldiak eta Tabakalerak antolatzen duten Ikusmira Berriak egonaldi-programan hautatutako lau proiektuek beren tokia izan zuten San Telmon, eta one to one motako bilera-agenda bat.

Horrekin batera, irailaren 25etik 27ra, Zinema Eraikitzen 32n eta Glocal in Progressen aukeratutako filmak proiektatu ziren –azken hori hizkuntza ez-hegemonikoetan egindako Europako ekoizpenei ikusgaitasun handiagoa emateko ekimen berria da–. Lau jarduera horietan aurkeztutako proiektu eta filmen dokumentazioa profesionalentzat tresna erabilgarria izateko sortutako argitalpen bakar batean jaso zen.

Jardunaldi horietan, San Telmo Donostian bildutako industriaren topalekua izan zen. Profesionalek biltzeko tokiak izan zituzten eta esperientziak partekatu zituzten, beste jarduera batzuetan parte hartuz, adibidez: aurkezpen eta mahai-inguruetan. Lehenengo aldiz, 2017an, akreditazio osagarri bat ezarri zen, erosleei prentsako eta industriako emanaldietarako lehentasunezko sarbidea emateko.

The Industry Clubek bere jardueretan laguntzen dioten laguntzaileen sare bat dauka. Edizio horretan, Zinemaldiaren webguneko profesionalen eremuan **MEET THEM!** espazioa erantsi zen. Bertan, The Industry Cluben eta zinemaren munduko erakundeen arteko akordioen bitartez Zinemaldira etorri ziren profesionalen zerrenda jaso zen. Gainera, nazioarteko erakundeek –Eurimages, kasu– eta ikus-entzunezkoetako enpresek – Film Factory, kasu– sari berriak eman zituzten. Hala, Donostia Zinemaldiko jarduera profesionalak Europako eta Latinoamerikako erreferentzia gisa sendotu zituzten nazioarteko industriari begira.

Europa- Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroa

Koprodukzio Foroa garapen bidean dauden proiektuak, Europakoak zein Latinoamerikakoak, aurkezteko plataforma bat da. Hautatutako 16 proiektuen arduradunek *pitching* saio batean aurkeztu zizkieten industriako kideei eta haien proiektuetan interesa zuten profesionalakiko hitzorduen agenda pertsonalizatu bat izan zuten.

San Telmo Museoko klaustroa *networking*-erako gune gisa prestatu zen, industriako akreditatuek bilerak hitzartu ahal izateko. Gune horretan, gosariak, bazkariak eta *happy hour* direlakoak eskaini zizkieten bertaratutakoei.

Era berean, ekitaldien aretoan mahai-inguruak eta aurkezpenak egin ziren. Horietan, profesionalak esperientziak trukatu zituzten, baita intereseko auziak jorratu ere, hala nola ikus-entzunezkoen azken joerak, koprodukzioak, banaketa eta negozio-eredu berriak.


927

BERTARATU
(2016AN 843)


164

PROIEKTU JASOTA
(2016AN 194)


399

BERTARATU MAHAI-
INGURUETARA
(2016AN 358)


859

BERTARATU
NETWORKING
EREMUAN
(2016AN 752)


783

ONE TO ONE
BILERA
(2016AN 538)


209

BERTARATU
PITCHINGS SAIOMETARA
(2016AN 196)

HAUTAKETA

Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroan, **29 herrialdetako 164 proiektuk** eman zuten izena, gehienak Latinoamerikakoak. Zinemaldiaren Hautaketa Batzordeak hamabost proiektu aukeratu zituen, nazioarteko hiru adituk eginiko txostenak kontuan hartuta: Manuel Pérez Estremerak, Javier Martínek eta Andrea Stavenhagenek. Horrez gain, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko proiektu zinematografikoak garatzeko tailerreko proiektu batek Foroan parte hartu zuen (saria irabazteko aukerarik gabe), Zinemaldiak Ibermedia programarekin sinatutako hitzarmenari esker.

Foroaren hiru egunetan, aukeratutako proiektuek hitzordu-agenda bizia izan zuten. Jarraian zehaztuko dugu:

- ◊ Alicia Schersonen *1989*. Ekoiztetxea: Araucaria Cine (Txile) 60 hitzordu.
 - ◊ Pablo Agüeroren *Akelarre*. Sorgin Films ekoiztetxea, interes ekonomikoko elkarte (IEE), Lamia Producciones eta Kowalski Films euskal ekoiztetxeek osatua. 38 hitzordu.
 - ◊ Fernando Fríasen *Borderless*. Ekoiztetxea: Film Tank (Mexiko - Herbehereak) 48 hitzordu.
 - ◊ Santiago Lozaren *Breve historia del planeta verde*. Ekoiztetxea: Constanza Sanz Palacios Films SRL (Argentina - Alemania) 48 hitzordu.
 - ◊ Fábio Baldoren *Doce inferno na galáxia*. Ekoiztetxea: Glaz (Brasil) 37 hitzordu.
 - ◊ Maite Alberdiren *El agente topo*. Ekoiztetxea: Micromundo Producciones. (Txile - Frantzia - AEB) 44 hitzordu.
 - ◊ Mikel Ruedaren *El doble más quince*. Baleuko SL ekoiztetxea 45 hitzordu.
 - ◊ Sergio Castro San Martín *El gol más triste*. Ekoiztetxea: Manufactura de películas. (Txile - Mexiko - Brasil) 51 hitzordu.
 - ◊ Mara Pescioren *Ese fin de semana*. Ekoiztetxea: Maravillacine (Argentina) 53 hitzordu.
 - ◊ Juan Sebastián Mesaren *La Roya*. Ekoiztetxea: Monociclo Cine (Kolonbia) 53 hitzordu.
 - ◊ Claudia Pintoren *Las consecuencias*. Ekoiztetxea: Sin Rodeos Films (Espainia - Mexiko) 54 hitzordu.
 - ◊ Mateo Bendeskyren *Limbo*. Ekoiztetxea: Volpe Films (Argentina - Txile - Austria) 46 hitzordu.
 - ◊ Matteo Tortoneren *Mother Lode*. Ekoiztetxea: Malfé Film (Italia - Frantzia) 32 hitzordu.
 - ◊ Ezequiel Raduskyren *Planta permanente*. Ekoiztetxea: Campo Cine (Argentina) 57 hitzordu.
 - ◊ Rodrigo Sepúlvedaren *Tengo miedo torero*. Ekoiztetxea: Forastero (Txile - Argentina) 51 hitzordu.
- IBERMEDIA PROIEKTUA (SARIA LORTZEKO LEHIAZ KANPO)**
- ◊ Heidi Hassan eta Patricia Pérez *A media voz*. Ekoiztetxea: Matriuska Producciones (Espainia - Kuba - Suitza - Frantzia) 38 hitzordu.

Sariak

EUROPA-LATINOAMERIKA KOPRODUKZIO FOROKO PROIEKTURIK ONENAREN SARIA

10.000 euroko saria ekoizle gehiengodunarentzat.

- Ezequiel Raduskyren *Planta permanente*. Ekoiztetxea: Campo Cine (Argentina)

EFADS-CAACIREN EUROPA-LATINOAMERIKA KOPRODUKZIO FOROKO SARIA

20.000 euroko saria ekoizle gehiengodunarentzat.

- Maite Alberdiren *El agente topo*. Ekoiztetxea: Micromundo Producciones (Txile - Frantzia - AEB)

KOPRODUKZIOAK GARATZEKO EURIMAGES SARIA

Eurimageseko kide den Europako herrialde bateko ekoizle gehiengodunarentzat 20.000 euroko saria, programa horretako beste herrialde batekin koprodukzioan jarduteko asmoarekin.

- Claudia Pintoren *Las consecuencias*. Ekoiztetxea: Sin Rodeos Films (Espainia - Mexiko)

EUROPA-LATINOAMERIKA KOPRODUKZIO FOROA. ARTE INTERNATIONAL PRIZE

5.000 euroko saria ekoizle gehiengodunarentzat.

- Pablo Agüeroren *Akelarre*. Ekoiztetxea: Sorgin Films IEE

2016ko Forjando Alianzas

hitzarmenaren esparruan, Foroan parte hartu zuten lau ekoizle aukeratu ziren, Europan egoitza duten enpresetakoak, beren proiektuak industriako profesionali aurkezteko Ventana Sur-en (Argentinan):

- 1- Iker Ganuza, SORGIN FILMS IEE (Espainia), *Akelarre* lanarengatik.
- 2- Carmelo Vivanco, BALEUKO (Espainia), *El doble más quince* lanarengatik.
- 3- Claudia Pinto, SIN RODEOS FILMS (Espainia) *Las consecuencias* lanarengatik.
- 4- Alessandro Legnazzi, MALFÉ FILM (Italia) *Mother Lode* lanarengatik.

Mahai-inguruak eta aurkezpenak

The Bigger Picture: zinemaren finantzaketa publikoari buruzko ikuspegi berriak - Bultzatzailea: Europa Distribution. 95 parte-hartzaile

Moderatzailea: Michael Gubbins - SampoMedia; Film Cymru Wales (Erresuma Batua).

Hizlariak: Artemio Benki - Artcam Films (Txekiar Errepublika); Jeanne Brunfaut - Cinema and Audiovisual Centre, Fédération Wallonie-Bruxelles (Belgika); Bérénice Honold - German Federal Film Board (Alemania); Enrico Vannucci - Eurimages (Frantzia); Lucia Recalde - Creative Europe MEDIA - European Commission; eta Ilse Schooneknaep - MIT/Vrije Universiteit Brussel (Belgika).

Italia-Iberoamerika koprodukzioak: Oinarriak eta araudia - Bultzatzaileak: MiBACT (Ministero dei beni e delle attività culturali e del turismo) eta ANICA (Associazione Nazionale Industrie Cinematografiche Audiovisive e Multimediali). 81 parte-hartzaile

Moderatzailea: Puy Oria - Oria Films; AMA, Madrilgo Ikus-entzunezkoen Elkartea (Espainia).

Hizlariak: Chiara Fortuna - MiBACT (Italia); Víctor Sánchez - Ibermedia Programme (Espainia); Juan Fernando Lima - INCAA (Argentina); eta Roberto Stabile - ANICA (Italia).

Kasu praktikoetako hizlariak: Rosanna Seregini - Alba Produzioni (Italia); Alfredo Federico - 39Films (Italia); Fabiano Gullane - Gullane (Brasil); eta Diego F. Ramírez - 64 A Films (Kolonbia).



Ganadores de los premios otorgados en el VI Foro de Coproducción Europa-América Latina

Talentu berriak sustatzen - Bultzatzailea: Variety. 45 parte-hartzaile

Moderatzailea: Emilio Mayorga, Variety (Espainia).

Hizlariak: Valérie Delpierre - Inicia Films (Espainia); Xabier Berzosa - Irusoin (Espainia); Augusto Matté - Jirafa (Txile); Eva Diederix - Wild Bunch (Frantzia); eta William Oldroyd - zinegilea (Erresuma Batua).

Eragile berriak zinemaren ekoizpenean eta banaketan. Bultzatzailea: Zinemaldia. 70 parte-hartzaile.

Moderatzailea: Elena Neira - La Otra Pantalla (Espainia).

Hizlariak: Vincent Maraval - Wild Bunch (Frantzia); Alexandra Latishev - La Linterna Films (Costa Rica); Agustina Costa Varsi - Volpe Films (Argentina); eta Enrique López Lavigne - Apaches Entertainment (Espainia).

Iberoamerikako Emakume Zinemagileen I. FIACINE Foroa - **Zinemaren industrian generoak parekatzea: Suediako eredia**, Anna Serner Suediako Zinema Institutuko zuzendariaren eskutik - Bultzatzaileak: Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademia eta FIACINE, Zinema Akademien Iberoamerikako Federazioa. 44 parte-hartzaile.

Moderatzailea: Joan Álvarez - Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademia (Espainia).

Aurkezpenak: María Fernanda Céspedes - FIACINEko zuzendari nagusia (Kolonbia); Azucena Rodríguez - Zuzendaritza Batzordeko idazkaria eta FIACINEko ordezkaria (Espainia); eta Inés París - Zuzendari eta gidoilaria (Espainia).

Hitzaldia: Anna Serner - Suediako Zinema Institutuko zuzendaria.

LGTBIQ zinema: Ikus-entzunezkoen industriadako abaguneak - Bultzatzailea: PROA, Kataluniako Ikus-entzunezkoen Ekoizle Federatuak. 64 parte-hartzaile.

Moderatzailea: David Matamoros - PROA - Ikus-entzunezkoen Ekoizle Federatuak eta Zentropa Spain (Espainia).

Hizlariak: Igor Blanco - Sebastiane Awards, GEHITU Magazine (Espainia); Roberto Castón - Bitart New Media (Espainia); Maren Kroymann - M-Appeal / Raspberry & Cream (Alemania); Pepe Ruiloba - Maguey Award, Guadalajara International Film Festival (Mexiko); eta Christine Vachon - Killer Films (AEB).

Babesleak eta kolaboratzaileak

Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroa egin ahal izateko, ezinbestekoak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren babesa eta Creative Europe MEDIAREN laguntza. Horiez gain, beste erakunde eta elkarte batzuek ere lagundu dute. Zehazki, honako hauek: EFADs (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkarte), CAACI (Iberoamerikako Ikus-entzunezkoetako eta Zinematografiako Agintarien Konferentzia) Canneseko zinema-jaialdiko Marché du Film saileko Producers Network, INCAA-Zinemako eta Ikus-entzunezko Arteen Institutu Nazionala (Argentina), ARTE France Cinéma, Eiken (Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterra), EPE (Euskal Produktoreen Elkarte), Etxepare Euskal Institutua, Eurimages, Europa Distribution, FAPAE (Espainiako Ikus-entzunezkoetako Ekoizleen Elkarten Federazioa), IBAIA (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte), Ibermedia programa, LatAm Cinema, Europa Creativa Desk Media Euskadi eta Zineuskadi.

Ikusmira Berriak

Ikusmira berriak Tabakalera – Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak eta Donostia Zinemaldiak elkarrekin antolatutako programa bat da, zinemako hizkuntzaren eta ekoizpen-moduen berrikuntzaren eta esperimentazioaren alde egiten duten ikus-entzunezko proiektuei laguntzeko. Programaren helburu nagusia ikus-entzunezko sormena bultzatzea da, eta bi ardatz ditu: prestakuntza eta ekoizpena.

Ikusmira Berriak programak, sari moduan, sei asteko egoitza eskaintzen du sormena garatzeko, hala nola laguntza bat ekoizpena hasteko eta laguntza-plan bat postprodukziorako.

Programak aurten hirugarren urtea bete du, eta berau amaitzeko, proiektuek parte-hartze aktiboa izan zuten Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroan, bai irailaren 24ko *pitching* saioan bai ondoko hiru egunetan stand batean izandako hitzordu-agendaren bidez.

Hautaketa

- 🔹 Julia Pesceren *Águila de papel*. Ekoizpena: Ezequiel Salinas (Argentina). 11 hitzordu.
- 🔹 Samuel M. Delgado eta Helena Girónen *Eles transportan a morte*. Ekoizpena: Filmika Galaika (Espainia). 13 hitzordu.
- 🔹 Mainer Fernándezen *Las letras de Jordi*. Ekoizpena: Sr. & Sra. (Espainia) 10 hitzordu.
- 🔹 Leonardo Van Dijlen *Stephanie*. Ekoizpena: De Wereldvrede (Belgika). 12 hitzordu.

Saria

REC GRABAKETA ESTUDIOA

Sari moduan, film luze bat egiteko postprodukzio-zerbitzuak eskaintzen ditu, 35.000 euroko balioarekin.

Mainer Fernándezen *Las letras de Jordi*. Ekoizpena: Sr. & Sra. (Espainia)

Zinema Eraikitzen 32

Ekinbide hau Cinélatino, Rencontres de Toulouse Frantziako jaialdiarekin lankidetzan antolatu da, eta urtean bi deialdi ditu, martxoan bata (Toulouse) eta irailean bestea (Donostia). Postprodukzio fasean dauden Latinoamerikako film luzeen ekoizpena errazteko helburua dauka, baldin eta finantzatzeko eta banatzeko zailtasunak badituzte.

2017an sei lan hautatu ziren, eta profesionalei aurkeztu zitzaizkien, bukatzen eta nazioartean banatzen laguntzeko.

Hautaketa


- ◊ Armando Capóren *Agosto* (Costa Rica / Kuba / Frantzia).
- ◊ María Alchéren *Familia sumergida* (Argentina / Brasil / Alemania).
- ◊ Aly Muritibaren *Ferrugem* (Brasil).
- ◊ Nicolás Buenaventuraren *Kairos* (Frantzia / Kolonbia).
- ◊ Rubén Mendozaren *Niña errante* (Kolonbia / Frantzia).
- ◊ Leandro Lararen *Rodantes* (Brasil).

Sariak

INDUSTRIAREN ZINEMA ERAIKITZEN 32 SARIA:

Ad Hoc Studios, Deluxe Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim Producciones, No Problem Sonido eta Wanda Vision enpresak film baten postprodukzioaz arduratuko dira –ingelesez azpigitulaturako DCP (Digital Cinema Package) kopia egin arte–, eta, horretaz gain, filma Espainian banatuko dute.

Aly Muritibaren FERRUGEM (Brasil).



CAACI/IBERMEDIA TV ZINEMA ERAIKITZEN SARIA

Iberoamerikako Ikus-entzunezkoetako eta Zinematografiako Agintarien Konferentziak (CAACI) ematen dio saria Industriaren Zinema Eraikitzen saria irabazten duen filmari, Ibermedia Programaren bitartez. Hain zuzen, filma Telebistan Zabaltzeko Laguntza Programan sartzean datza saria: Ibermedia TVn eta Ibermedia Digitalen berau modu ez eksklusiboan emititzeko baimena, 20.000 USDren balioagatik.

Aly Muritibaren FERRUGEM (Brasil).

FILM FACTORY SARIA

Aurten lehen aldiz eman da eta Zinema Eraikitzen 32n hautatutako filmetako baten mundu osorako nazioarteko banatze-eskubideak –Espainiarakoak izan ezik– aurretik erostean datza; filmaren ekoizle nagusiari 30.000 euro emango zaizkio gutxienez.

Aly Muritibaren FERRUGEM (Brasil).


Kolaboratzaileak

Zinema Eraikitzen sailak honako enpresa eta erakunde hauen babesa du: Ad Hoc Studios, Conferencia de Autoridades Audiovisuales y Cinematográficas de Iberoamérica (CAACI), Deluxe Spain, Dolby Iberia, Film Factory, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones, No problem Sonido, Programa Ibermedia, Wanda Visión. Eta beste hauen laguntza: Association Rencontres Cinémas d'Amérique Latine de Toulouse (ARCAIT), Caisse Centrale d'Activités Sociales du personnel des industries électriques et gazières (CCAS), Centre National du Cinéma et de l'Image Animée (CNC), CINÉ +, Commune Image, Confédération Internationale des Cinémas d'Art et Essai (CICAE), Conseil Général de la Haute Garonne, Creative Europe Media, Gaumont Wilson, Eaux Vives, École Supérieure d'Audiovisuel (ESAV), Europa Distribution, Firefly, La Cinéfondation, La Trame, Mactari, Le-Lokal, Mairie de Toulouse, Producers Network, Région Occitanie Pyrénées - Méditerranée, Signis eta Titrafilm.

Glocal in Progress

2017an sortutako industria-jarduera honen helburua da Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan filmatuta dauden produkzioak ezagutzera ematea –hau da, alemanez, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, italieraz edo errusieraz filmatuta ez daudenak–, kolaborazioak erraztea, koprodukzioak sustatzea eta film horiek hedatzen laguntzea. Glocal in Progress Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako Glocal Cinema ekinbidearen fruitu da.

Donostia Zinemaldiko hautaketa-batzordeak postprodukzio-fasean zeuden hiru film luze aukeratu zituen, eta horiek amaitzen eta nazioartean banatzen lagun zezaketen profesionalen talde bati aurkeztu zizkion (ekoizleak, banatzaileak, salmenta-agentek eta programatzaileak, besteak beste).



Hautaketa

- ☛ Telmo Esnal zuzendariaren *Dantza*, Txintxua Films SLk ekoitzia (Espainia)
- ☛ Miha Mazziniren *Izbrisana / Erased*, Gustav Filmek ekoitzia (Eslovenia - Kroazia - Serbia)
- ☛ Hadrian Marcuren *Un om la locul lui / A Decent Man*, 4 Proof Filmek ekoitzia (Errumania)

Sariak

GLOCAL IN PROGRESS INDUSTRIAREN SARIA

Ad Hoc Studios, BTeam Pictures, Deluxe Spain, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim Producciones eta No Problem Sonido enpresek ematen dute saria, eta film bati postprodukzio-zerbitzuak eskaintzean datza saria –ingelesez eta gaztelaniaz azpitulaturiko DCP kopia egin arte– eta, akaso, filma banatzea Espainian.

Telmo Esnalen DANTZA, Txintxua Films SLk ekoitzia.

GLOCAL IN PROGRESS SARIA

10.000 euroko saria da, eta Donostia Zinemaldiak Industria saria jasotzen duen filmari ematen dio.

Lau Haizetara Dokumentalen XIII. Koprodukzio Foroa

IBAIak (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak) antolatzen du foroa, The Industry Cluben lankidetzarekin, ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalen arteko topagune bat eskaintzeko helburu nagusiarekin, Europako eskualdeetako ekoizleen artean koprodukzio-harremanak sustatzeko. Jardunaldi horretan, ekoizleek beren proiektuak aurkeztu zituzten nazioarteko *Commissioning Editors** nabarmenen multzo baten eta sektoreko hainbat profesionalen aurrean, eta banakako bilera-agenda bat izan zuten.



Hautaketa

- ❖ Fátima Subeh eta Edu Marínen / *Am Not Your Slave* (Festival Intl. de Programmes Audiovisuels jaialdiaren azken edizioan parte hartu zuen, Biarritz-Frantzia). Ekoizpena: Contramedia Films - AlemDoc (Espainia).
- ❖ Jean-Robert Vialleten *Breakpoint, A Counter History Of Progress*. Ekoizpena: Cinephage (Frantzia).
- ❖ Karin Wegsjören *Get Settled!*. Ekoizpena: Karin Wegsjö Produktion (Suedia).
- ❖ Gentzane Martínez eta Alejandro Garcíaen *Mr. Ripley, El Arte De La Estafa*. Ekoizpena: Marmoka Films (Espainia).
- ❖ Patxi Basaberen *Nombre en clave: Maverick*. Ekoizpena: Contrasantiedo P.C. - Zinema Varietés (Espainia).
- ❖ Hou Ningen *Noodle Dream*. Ekoizpena: 24 images - Dynamic Communication Company (Frantzia - Txina).
- ❖ Jacques Goldsteinen *Panama Al Brown, A Mysterious Force*. Ekoizpena: Bachibouzouk (Frantzia).
- ❖ Ester Sparatoreren *Photograph-Women*. Ekoizpena: Tiresias Films - Kino Produzioni (Frantzia - Italia).
- ❖ Verjana Abazajen *Prisoners Without Prison* (Festival Intl. de Programmes Audiovisuels jaialdiaren azken edizioan parte hartu zuen, Biarritz - Frantzia). Ekoizpena: Mov(i)e ON (Albania).
- ❖ Chus Gutiérrezen *Rol&Rol*. Ekoizpena: Turanga Films SLU - Revolution Films SL (Espainia).
- ❖ Ander Iriarteren *El sonido del "crack"*. Ekoizpena: Irusoin SL eta Mirokutana Koop.
- ❖ Laura Sisteróren *Tolyatti Adrift*. Ekoizpena: Boogaloo Films (Espainia).

*Commissioning editor-ak

Aintzane Pérez del Palomar (EITB - Espainia); Andrés Luque Pérez (TVE - Espainia); Axel Arnö (SVT - Suedia); Catherine LeClef (Cat&Docs - Frantzia); Elena Mera Dios (Treeline Distribution - Espainia); Jean Pelletier (Canada irrati); Jordi Ambrós Hortensi (TV3 - Espainia); Proinsas Ní Ghrainne (TG4 - Irlanda); Mohammed Belhaj (Aljazeera Documentary Channel - Qatar); Lorraine Hess (Link TV - AEB).

Jarduera horretan *pitching* saioak prestatzen ikasteko tailer bat ere izan zen. Tailerra Foroa egin aurreko bi egunetan hautaturiko proiektuen ordezkari zegoen zuzenduta.

Lau Haizetara XIII. Foroak 72 parte-hartzaile izan zituen, eta arratsaldean *pitching* saioak, banakako bilera-agenda eta hitzaldi bat izan ziren. Azken horretan, Ove Rishøj Jensenek (European Documentary Networkeko aholkularia) zinema dokumentalak aro digitalean dituen erronkak mahaigaineratu zituen. 21 parte-hartzaile.

Beste jarduera batzuk

The Industry Clubek Zinemaldiaren Agenda Profesionalean zehazten diren aurkezpen, mahai-inguru eta profesionalen arteko bilera ugari antolatu zuen.

- ◊ *Hitz egin dezagun gutaz: Bulgaria, Kroazia, Portugal eta Euskadi. Ezagutu aukera zinematografikoak, koprodukzioak eta arrakasta-kasuak MEDIA lurralde horietan. Aurkezpenaren bultzatzailea: Europa Creativa MEDIA.*
- ◊ *MEDIA All 4 one. Garapen hobea, finantzazio gehiago eta banaketa handiagoa. Europa Creativa MEDIAk bultzatua.*
- ◊ *Europa Cinemasek eta Zineuskadi - Europa Creativa Desk MEDIA Euskadik antolatutako berrikuntza-laborategia.*
- ◊ *Ove Rishøj Jensenen hitzaldia: Eguneroko bizitzako istorioak kontatzeak duen etorkizuna - Dokumentala aro digitalean (EDN).*
- ◊ *Finantzaketa-aukera berriak industria kulturalak eta sortzaileak nazioartekotzeko - Jardunaldiaren bultzatzailea: ICEX.*
- ◊ *CAACIko Aholku Batzordea (Iberoamerikako Ikus-entzunezkoetako eta Zinematografiako Agintarien Konferentzia) - Bultzatzailea: Ibermedia programa.*
- ◊ *EFADsen (Zinema Agentzietako Zuzendarien Europako Elkarte) eta CAACIren bilera.*
- ◊ *Merkatu Digital Bakarrari eta Copyrightari buruzko eta Genero Berdintasunari buruzko lantaldeen bilerak - EFADs.*
- ◊ *Europa Distribution workshopa.*
- ◊ *Iberoamerikako Emakume Zinemagileen I. FIACINE Foroa: lansaiola - Espainiako Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademia eta ICAA. Foro horretan 20 profesionalak parte hartu zuten, eta hauek izan ziren euskal ordezkariak: Aitziber Atorrasagasti, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Sustapeneko zuzendaria; Maialen Beloki, Donostia Zinemaldiko zuzendariordea; Izaskun Landaida, Emakundeko zuzendaria; eta Izaskun Arandia, Hemen-Here Ikus-entzunezkoaren Emakume Profesionalekko Direktorioko presidentea.*
- ◊ *Film Madrid eta zuzendari berriei bultzada.*
- ◊ *Berrikuntza-laborategia, Europa Cinemas eta Zineuskadi - Europa Creativa Desk MEDIA Euskadik antolatua.*
- ◊ *Ezagutu Kanarietako ikus-entzunezkoetarako laguntza eta pizgarri berriak. Canarias en Redek bultzatua.*
- ◊ *Screen International koprodukzio-gosaria: Europa eta Latinoamerikaren arteko koprodukzioak, Ardimages UK ekoiztetxeak babestua, Panama Film Commission erakundearen laguntzarekin.*
- ◊ *Iberoamerikako LGTBIQ Zinema Jaialdien Topaketa - Sebastianen sariak.*
- ◊ *PROAren ikus-entzunezkoetarako finantzazio-eredu berri baterako proposamena - Bultzatzailea: PROA (Kataluniako Ikus-entzunezkoen Ekoizle Federatuak).*
- ◊ *Hemen-Here eta EWAren (European Women's Audiovisual Network) arteko bilera.*
- ◊ *FiSahara-Saharako Nazioarteko XIV. Zinema Jaialdiaren aurkezpena.*

Happy hour-ak, kopak eta koktelak

- ◊ *Extremadura Audiovisual: An Infinity Look happy hour-a.*
- ◊ *Unifrance koktela - French Cinema in San Sebastián.*
- ◊ *The Industry Clubeko taldeentzako eta laguntzaileentzako ongietorri kopa.*
- ◊ *Koktela - Zineuskadik Euskal Zinema ospatzen du.*
- ◊ *Asian Film Night Party. Espainiako Irudia Mugimenduan Jaialdiaren aurkezpena: asiar zinemagile berriak.*
- ◊ *Industriaren Kopa.*
- ◊ *ARRI - Aurkezpena eta koktela: Zinemako filmaketetarako ekipamendu berriak.*
- ◊ *Lau Haizetara Dokumentalen XIII. Koprodukzio Foroaren amaiera - IBAIA.*

Nazioarteko erakunde eta profesionalen sareekiko lankidetzak

EUROPEAN FILM PROMOTION

Lankidetzak horren ildotik, Latinoamerikan interesa duten Producers On the Move programako Europako 7 ekoizle gonbidatu ziren, Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroan parte har zezaten.

EUROPA DISTRIBUTION

Europa Distribution (Europako Banatzaile Independenteen Sarea) eta Donostia Zinemaldiaren arteko lankidetzaren esparruan, elkarte horretako hogeitun bat lagun izan ziren Donostian, tailerra egiteko.

Gainera, Europa Distribución sareak mahai-inguru bat bultzatu du Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroaren esparruan: *The Bigger Picture: zinemaren finantzaketa publikoari buruzko ikuspegi berriak*

MEET THEM!

The Industry Clubek lankidetzak sare bat du Latinoamerikako beste zinema-erakunde batzuekin eta zinemako esparruko beste organismo batzuekin Donostian ekoizle gailenak egon daitezten. Jarraian, erakunde kolaboratzaileak eta ekoizle parte-hartzaileak zerrendatzen dira:

Cinemachile (Txile).

Cinema do Brasil (Brasil).

Iberoamerikako zinema-proiektuak garatzeko ikastaroa (Espainia).

Écla Aquitaine (Frantzia).

Europa Creativa Desk Media Euskadi (Espainia).

European Film Promotion (Alemania).

Istituto Italiano di Cultura (Italia).

Ministero dei beni e della attività culturali e del turismo (MIBACT) (Italia).


Panamá Film Commission (Panama).

Proimágenes Colombia (Kolonbia).


Telefilm Canada (Kanada).

Bideoteka

Zinemaldiko Bideotekak Zinemaldiko sail guztietan hautatuko filmak *streaming* bidez ikusteko aukera jartzen du industriako profesional akreditatuen esku, betiere film horien ordezkariak inskribatu badituzte. Filmak Zinemaldia amaitu eta hilabete igaro arte ikusi ahal dira (2017ko urriaren 30era arte). Zinemaldiko Bideotekaren kudeatzailea CinandoVL da, Cannesko zinema-jaialdiko Marché du Film ekimenak industriako profesionalentzat sortutako plataforma.



Zinemaldiaren 9 egunetan 616 ikustaldi erregistratu ziren (2016an, 823), eta film hauek izan ziren ikusienak:



Plataforma Zinemaldiaren lehen egunetik (irailak 22) urriaren 30era arte egon zen erabilgarri; zinema-jaialdia amaitu eta hilabete geroagora arte, beraz. Denbora-tarte horretan 1.525 ikustaldi izan ziren (2016an, 2.063).

Denbora-tarte guztian gehien ikusi ziren filmak honako hauek izan ziren:



65. edizioko
65 momentu



Alanis filmeko taldea, Sofía Gala Castiglione aktorea eta haren seme Dante Della Paolera, Anahí Berneri zuzendaria eta Javier Van de Couter gidoilaria, Kursaaaleko alfombra gorriko photocallean.



Monica Bellucci aktore italiarra, María Cristina hotelera iristean.



Donostia Zinemaldian maiz ikusten den irudi bat: ikusleen ilarak, filmen emanaldien aurretik.



Bi zerbitzari janaria zerbitzatzen, Basque Culinary Centerren egindako Culinary Zinemaren zazpigarren edizioako afarietako batean.



Michael Winterbottom eta Steve Coogan izan ziren Culinary Zinemaren amaierako zeremoniaren gidariak, *The Trip to Spain* filmeko ekoizle Melissa Parmenter eta Jorge Maestro eta Enrique Fleischmann sukaldariez lagunduta.



Ricardo Darín amari azalpenak ematen, Donostia saria eskertzeko hitzaldian hura aipatzea ahaztu zitzaielako, *La cordillera* filmeko lankideen aurrean, Santiago Mitre zuzendaria eta Dolores Fonzi eta Elena Anaya aktoreak irribarretsu begira dituela.



Daniela Vega aktorea, Horizontes Latinos saila inauguratu zuen *Una mujer fantástica* filmeko protagonista, Julio Feo kazetariarekin hizketan, Horizonteseko gosari batean.



Raymond Depardon, Rima Das, Félix Viscarret eta Carlos Saura, Juan Zavala kazetariaren eta Koldo Almandoz zinemagilearen arteko elkarrizketa entzuten, TCM topaketa batean.



Elkarrekin-Together filmeko talde artistikoa eta teknikoa, laguntzaileak, babesleak eta erakundeak, Euskal Zinemaren eta ETBren Galaren egunean.



Thierry Fremaux, Canneseko zinema-jaialdiaren zuzendaria, *Lumière* filmaren emanaldi iruzkinduan, Tabakaleran.



Gipuzkoa Coopera proiektuko familia-argazkia, Mar de Platako Bigarren Hezkuntzako 37. Eskola Publikoko ikasle eta irakasleekin, Ione Hernández errealizadorearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko, INCAAko eta Donostia Zinemaldiko ordezkarekin.



Handia filmeko taldea ikusleen erreakzioa jarraitzen, Kursaleko galako emanaldiaren ondoren.



Eneko Sagardoy, *Handia* filmeko erraldoia, «hazita», Kurasaaleko terrazako photocallean.



Todd Haynes zinemagilea eta Christine Vachon ekoizlea, Zinema Ikasleen Nazioarteko XVI. Topaketan eskainitako bost eskola magistraletako batean.




José Luis Rubio (REC Grabaketa Estudioa), Ikusmira Berriak programako *Las letras de Jordi* proiektuari saria eman ondoren. Maider Fernández Iriarte da zuzendaria; ekoizleak, berriaz, Aritz Moreno eta Leire Apellániz.



Alberto Rodríguez, Pablo Molinero, Manolo Solo eta Paco León, *La peste* telesailaren emanaldiaren ondoren. Sail Ofizialerako aukeratutako lehenengo telesaila da.



Dave Franco *The Room / The Disaster Artist* filmeko esaldi bereizgarria ilustratzen eta bere anaia James Franco haren aurrean barrez. Azken horrek bere lekukotza utzi zuen Zinemaldiko sinaduren liburuan.





Sarah Miles aktorea zale gazte batekin argazki bat ateratzen, alfonbra gorrian. Milesek Joseph Loseyri buruzko atzera begirakoko *The Servant* filma aurkeztu zuen.



La cordillera filmeko taldea Kursaalera photocallera iristeko maldan: Fernando Bovaira eta Simón de Santiago ekoizleak, Elena Anaya aktorea, Santiago Mitre zuzendaria eta protagonistak, Ricardo Darín eta Dolores Fonzi.



Jean-Pierre Léaud eta Nobuhiro Suwa atseden hartzen, *Le lion est mort ce soir* filmaren prentsaurrekoaren aurretik.



La llamada filmeko zuzendari Javier Ambrossi Macarena García aktorea altxatzen, beste zuzendaria, Javier Calvo, begira dela, TVEko Galako alfombra gorrian.



Marrowbone filmeko taldearen besarkada –Sergio G. Sánchez zuzendaria eta Anya Taylor-Joy, Charlie Heaton, Mia Goth eta George MacKay aktoreak–, Kursaalera ikusleen aurrean, filmaren emanaldiaren ondoren.



Melanie Thierry, *La douleur* filmeko protagonista, irribarrez, prentsurrekoan.



Morir filmeko taldea: Fernando Franco zuzendaria, bi aktore protagonista inguruan dituela, Marian Álvarez eta Andrés Gertrúdix.



Julia eta Gustavo Salmerón ikusleei txaloka, *Muchos hijos, un mono y un castillo* filmaren emanaldiaren ondoren, Zabaltegi-Tabakaleran.



Anne Gruwez epaile belgikarra ikusleei begira, *Ni juge, ni soumise* filmaren Kursaalera emanaldiaren ondoren. Filmean egindako lanagatik aipamen berezia jaso zuen.



Alosian Vivancos eta Ramón Agirre *Operación Concha* filmeko gainerako taldekideen inguruan: Joxe Portela ekoizlea, Karra Elejalde aktorea, Antonio Cuadri zuzendaria eta Bárbara Goenaga, Unax Ugalde, Jordi Mollá eta Bárbara Mori antzezleak.



Life and Nothing More filmeko taldea alfonbra gorriko photocallean.



Juanba Berasategiren alarguna eta alaba, Euskadiko Zine Aretoen Elkarteak ematen duen EZAE saria jasotzen.



Jorge Guerricaechevarría Julia Juanizi Zinemira saria ematen, Euskal Zinemaren eta ETBren Galako aurkezle Itziar Ituño begira dutela.



Marian Fernández eta Telmo Esnal, *Dantza lanari emandako Glocal in Progress* saileko Industria saria jasotzen.



Ferrugem filmeko Aly Muritiba zuzendaria eta Antonio Junior ekoizlea pozik, Zinema Eraikitzen 32ko hiru sariak jaso ondoren.



Airton Cozzolino, Gisela Pulido, Kai Lenny, Leire Fernández, Iñaki Osa Goikoetxea eta Natxo González, Savage Cinema saileko *Paradigm Lost* lanaren aurkezpenean.



Arnold Schwarzenegger bere argazki baten gainean autografo bat sinatzen, bera narratzaile eta ekoizle den *Wonders of the Sea 3D* aurkeztu aurretik.



Arnold Schwarzenegger aktore eta ekoizle estatubatuarra, Zinemaldiko sinaduren liburuan bere zigilua uzten.



Der Hauptmann filmeko taldea, Zurriola hondartzari eta Kantauri itsasoari begira. Filmak argazki onenaren epaimahaiaren saria lortu zuen.



Bárbara Lennie, *Una especie de familia* filmean berarekin protagonismoa partekatzen duten Daniel Aroz eta Claudio Tolcachir aktoreen artean. Filmak gidoi onenaren saria irabazi zuen.



Raymond Depardon zinemagile frantsesaren erretratua (*12 jours, Zabaltegi-Tabakalera*).



Agnès Vardaren eskuak –«Nire bilobei ikustera etortzeko esaten diet, errekek eta orbanak dituztela, eta eskuetan paisaia bat deskubriarazten diet»– eta bere betaurreko bereizgarriak; Europako zinemako legenda baten begirada.



Vergüenza telesaileko taldea, aurkezpenean Zabaltegi-Tabakalera: Juan Cavestany eta Alvaro Fernández Armero zuzendariak eta Ángeles Páez, Vito Sanz, Ana Adams eta Javier Gutierrez aktoreak.



Glenn Close eta Annie Starke argazkilariei txaloka, Kursaaen barruko saioaren ondoren, *The Wife* filmari buruzko prentsaurrekoaren aurretik.



Christian Slater aktorea zinemazale gazteekin hizketan, María Cristina hotelera iristean.



Amaierako festako une bat, Miramar jauregian.



Sebastiane saria emateko ekitaldia Kur aretoan; Dolores Fonzi epaimahaikide ofiziala, *120 battements par minute* filmeko protagonista Nahuel Pérez Biscayarti saria emateko unean.



Gas Natural Fenosaren prentsaurreko jendetsua prentsaren klubean. Bertan, Isabel Coixetek *Proyecto Tiempo* film luzeko lehenengo zatia aurkeztu zuen.



Aki Kaurismaki Fipresci saria jasotzen, Zinema Kritikarien Nazioarteko Federazioko presidente Alin Tasciyanen eskutik, Cayetana Guillén Cuervo aurkezlea begira dutela, Zinemaldiaren inaugurazio-galan.



Ruben Östlund errealizadore suediarra *The Square* aurkezten, Cannesen Urrezko Palmorria irabazi ondoren Zabaltegi-Tabakalera inauguratu zuen filma.



Wim Wenders zinemagile alemaniarra 65. Zinemaldia inauguratu zuen *Submergence* filmeko protagonisteeekin, Alicia Vikander eta Celyn Jones aktoreekin.



Carlos Saura eta Antonio Banderas berriz elkartu ziren, Zinematografia Sari Nazionala emateko ekitaldian.



Lynne Ramsay *You Were Never Really Here* aurkezten, Victoria Eugenia antzokian.



Kazetari talde bat Hirokazu Kore-eda elkarrizketatzen, Victoria Eugenia antzokiko terrazan.



Beatriz Bodegas ekoizlea, Xavier Legrandi RTVE-Beste begirada saria ematen. Donostia Hiria Publikoaren Saria ere jaso zuen, *Jusqu'à la garde* filmagatik.



Marcela Said, *Los perros* filmari Horizontes Saria eman zaiola ziurtatzen duen diploma erakusten. Bere fikziozko bigarren film luzea da.



Diego Lerman eta María Meira, *Una especie de familia* lanagatik saritutako gidoilariak.



Sarrituen familia-argazkia: James Franco, erdian, Urrezko Maskorrari eusten, eta haren ondoan Marian Fernández (*Dantza*), Emma Suárez (epaimahaikide ofiziala), Javier Valdés (*Ad Hoc*), Jorge Guerricaechevarría (epaimahaikide ofiziala), Sofía Gala Castiglione eta Anahí Berneri (aktore onenaren eta zuzendari onenaren zilarrezko maskorren irabazleak), Itxaro Borda (Euskal Zinemaren Irizar sariaren epaimahaiko presidentea) eta Koldo Zuazua (*Akelarre*), besteak beste.



Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroa, San Telmoko elizan.



Matar a Jesús filmeko zuzendari Laura Mora, Natasha Jaramillo protagonista eta James Brown argazki-zuzendaria. Filmak Gazteriaren EROSKI saria, Kutxabank-Zuzendari Berriak sariko aipamen berezia eta Signis sari berezia irabazi zituen.



Javier Gutiérrez eta Antonio de la Torre argazki bat ateratzen ikusle gazte batzuekin, *El autor* laneko alfombra gorrian.



Guy Hodes (Israelgo The Sam Spiegel and TV School eskolakoa) selfie bat egiten bere kideekin, Zinema Ikasleen Nazioarteko XVI. Topaketaren amaieran.



Handia filmeko zinemagileen eta ekoizleen selfiea.



Björn Runge zinemagile suediarra, *The Wife* bere filmeko hiru kideri, Glenn Close, Christian Slater eta Annie Starkeri, argazki bat ateratzen, filma Zinemaldiaren amaierako galan eman ondoren.



Frederick Wiseman zinemagile estatubatuarra, *Ex Libris: New York Public Library* aurkeztu aurretik, Zabaltegi-Tabakalerako photocallean, Zinemaldiko Hautaketa Batzordeko kide Amaia Serrullaren ondoan.



Elkartze interesgarria, María Cristina hoteleko harreran: Zinemaldia inauguratzeko zen Wim Wenders, 65. edizioko Donostia Sarietako lehena jasotzeko zen Agnès Varda agurtzen.



Haurrentzako zinema-saioa Belodromoan, *Printze txikia* filmaren emanaldiarekin. Sei emanaldi egin eta guztira 13.322 eskolaume gipuzkoar elkartu ziren.



Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua Belodromoan; 1.690 entzule joan ziren.



Javier Cámara aktorea Belodromoko agertokira ateratzen, *Fe de etarras* aurkeztera; atzean, Aizpea Goenaga aurkezlea, Julián López, Miren Ibarguren eta Gorka Otxoa aktoreak eta Diego San José gidoilaria.



Javier Bardem eta Penélope Cruz irribarretsu, Belodromoko agertokira irteten, *Loving Pablo* aurkeztera.